

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

5055

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 16koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, Unibertsitateko Irakasle Funtzionarioen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

Indarrean dagoen arautegiari jarraituz –UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko erabakia, irakasle-ikertzaileentzako 2016ko lan eskaintza publikoa onartzen duena (EHAA, 2016-07-20), eta 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 20.Bat.2.J) artikulua, eta 2016ko ekainaren 29ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren baimenarekin–, Errektorego honek, emanda dauzkan ahalmenez baliatuta, Erabaki honen I. eranskinean aipatzen diren unibertsitateko irakasleen kidegoko plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egitea erabaki du.

DEIALDIAREN OINARRIAK

1.– Arau orokorrak.

1.1.– Ondoren aipatzen den legeria izango da aplikagarri lehiaketa honetan: Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikok zati batean aldatzen duena; urriaren 29ko 48/2015 Legea, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; urriaren 5eko 1313/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketak arautzen dituen (urriaren 8ko BOE); urriaren 5eko 1312/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko akreditazio nazionala ezartzen duena; irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko lehiaketen arautegia, Gobernu Kontseiluak 2009ko maiatzaren 28an onartua (Irakasleen errektoreordeak 2009ko irailaren 15ean emandako erabakiaren bidez argitaratua 2009ko urriaren 9ko EHAA); Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak (2011ko otsailaren 24ko EHAA); deialdi honen oinarriak; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; aplikagarri diren arau orokorrak; eta, horietan guztietan xedatuta ez dagoenerako, Herri Administrazioan sartzeko araubide orokorra arautzen duten estatu mailako xedapenak.

1.2.– Jakintza arlo/adar berekoak diren eta ezaugarri berberak dituzten plazek beren prozedura izan ahalko dute lehiaketetan.

2.– Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.– Honako baldintza hauek bete beharko dituzte lehiaketan onartuak izateko:

2.1.1.– Lehiaketan parte hartzeko nazionalitate baldintzak.

a) Espainiarra izatea edo Europar Batasuneko beste estatu bateko herritarra; edo, Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak sinatu dituen nazioarteko hitzarmenen arabera langilean zirkulazio askea (Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean definituta dagoen moduan) aplikatu dakiekeen estatuetako herritarra izatea.

b) Era berean, Europar Batasuneko estatuetaoak ez diren atzeritarrek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta beren estatuak espainiarrei aitortzen badie unibertsitateko irakaskuntzan aritzeko legezko gaitasuna, Espainiako unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioen pareko postuetan. Lehiakideak ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko du hori.

c) Espainiako eta Europar Batasuneko estatuetao nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute (zuzenbidez banaturik ez badaude), bai eta beren ondorengoek eta ezkontidearenek ere (ezkontideak zuzenbidez banaturik ez badaude), baldin eta seme-alabak adingabeak badira edo adin nagusikoak izan arren beren menpe bizi badira.

d) Eskubide bera (c atalekoa) izango dute beste estatu batzuetako herritarren senideek ere, Europar Batasunaren nazioarteko itunetan hala xedatzen denean, baldin eta itun horiek Espainiak berretsi baditu.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetao herritarrek eta langileen zirkulazio askea aplikatzen ez den Europar Batasuneko herritarrek egoitza baimena eduki beharko dute.

2.1.2.– Hamasei urte baino gehiago izatea, eta erretiratzeko adina ez edukitzea (hau da, 70 urte).

2.1.3.– Kasuan kasuko irakasleen kidegoko lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

2.1.4.– Diziplina espediente bidez, Estatuko Administrazio Orokorreko zerbitzutik edo autonomia, instituzio edo tokiko administrazioetako jardueratik bereizita ez egotea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea epai irmo bidez. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

2.1.5.– Doktore titulua izatea. Akreditazioa lortuta izanez gero, doktore titulu homologatuaren ondorio berberak izango ditu (urriaren 5eko 1312/2007 Errege Dekretua; urriaren 6ko BOE).

2.1.6.– Ondoren adierazten den zenbatekoa ordaintzea plaza bakoitzerako: 21,80 euro.

Eskubideak ordaintzeko, dagokion diru sarrera edo transferentzia egin beharko da kontu korrante honetara (lehiakidearen izen-abizenak eta plazaren hurrenkera zenbakia zehaztuta):

Kutxabank

UPV/EHUko Irakasle-Ikertzaileen arloko Errektoreordetza. Irakasleen Lehiaketetako Tasak

Kontu korrantearen zenbakia: 2095 0292 94 3239002233

Ordainketa posta igorpen edo igorpen telegrafiko bidez egiten duten lehiakideek Deialdien eta Lehiaketen Atalera zuzenduko dute igorpena (1397 posta kutxa, 48080 - Bilbao).

Lehiaketatik kanpo geldituko dira eskariak aurkezteko epearen barruan lehiaketan parte hartu ahal izateko ordaindu beharreko zenbatekoa ordaindu ez duten lehiakideak, eta ez da beste eperik zabalduko tasa horiek ordaintzeko edo osatzeko.

Dena dela, azterketa eskubideak ordaindu arren, ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eskaria ere aurkeztea errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

2.2.– Baldintza espezifikoak.

2.2.1.— Lehiaketan parte hartu ahal izango dute kasuan kasuko jakintza adarrean akreditazioa lortu dutenek, urriaren 5eko 1312/2007 Errege Dekretuaren (urriaren 6ko BOE) 12. artikuluan eta lehen, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko akreditazio nazionala arautzen da. Gainera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalaren arabera, lehiaketan parte hartu ahal izango dute Ikerkuntza Organismo Publikoetako Ikerkuntza Ikertzaileen Eskalako funtzionarioek, unibertsitateko titularren kidegorako akreditatuta badaude.

2.2.2.— Era berean, lehiaketan parte hartu ahal izango dute ere horretarako gaituta daudenean, uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera (unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko gaikuntzarako sistema nazionala eta lehiaketan araubidea arautzen dituen dekretua). Alde horretatik, Unibertsitate Eskolako katedradun izateko gaituta daudenak unibertsitateko irakasle titular izateko ere gaituta daudela ulertuko da.

2.2.3.— Lehiaketan parte hartu ahal izango dute lehiaketan aipatutako unibertsitate irakasleen kidegokoak direnak edo estatu kideetako unibertsitateetako unibertsitateko irakasleek, baldin eta unibertsitateko irakasleen kidegokoen mailara iritsi badira eta ANECAk hori hala dela ziurtatzen badu.

2.2.4.— Hizkuntza eskakizun elebiduna duten plazetan, bide hauetako bat erabiliko da euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatzeko:

2.2.4.1.— Euskararen jakite maila egiaztatzeko proben bidez. Proba hauek soilik egingo dira lehiakide batek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian hala eskatzen badu. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik egingo dira.

2.2.4.2.— Euskararen arloko errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean eman zuen Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) ezarritakoa betez, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Batera-tuaren C1 mailaren pareko tituluak aurkeztuz (2010eko azaroaren 15eko EHAA).

Kasu honetan, bai titulua, bai baliozkotzea, lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen lortutakoak izan beharko dira.

2.2.4.3.— Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan zehaztutakoari jarraituz, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena (2012ko apirilaren 16ko EHAA).

2.2.5.— Hizkuntza ez-ofizial bat jakitea nahitaezkoa den plazetan, honela egiaztatuko da hizkuntza maila:

2.2.5.1.— Hizkuntza ez-ofizialaren jakite maila egiaztatzeko probak eginda. Proba hauek soilik egingo dira lehiakide batek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian hala eskatzen badu. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik egingo dira.

2.2.5.2.— Ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztageria eskuratzeari buruzko araudian zehaztutako moduan (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24an onartutako araudia, 2010eko abenduaren 2ko EHAAn argitaratua).

2.3.— Ezin izango dute lehiaketan parte hartu unibertsitate berean edo beste batean kategoria eta jakintza arlo bereko plaza dutenek, baldin eta betetzen ari diren plaza hori eskuratu badute uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 14. artikulua (abuztuaren 7ko BOE) eta urriaren 5eko 1313/2007 EDren 9.4 artikulua (urriaren 8ko BOE) araututako lehiaketaren bidez, non eta plaza

hori bi urtetik beherako aldian bete duen, aipatutako EDren 17.7 artikularen eta 1313/2007 EDren 9.4 artikularen arabera.

2.4.– Ezingo dira lehiaketara aurkeztu UPV/EHUn lanean diharduten karrerako funtzionarioak, baldin eta betetzen ari diren plazak ezaugarri berberak badauzka (kategoria, jakintza arloa, saila, ikastegia eta hizkuntz eskakizuna).

2.5.– Langileen zirkulazio librea aplikatzen den beste estatu batzuetako herritarren kasuan, dagozkion probak egin beharko dituzte lehiakideek, gaztelaniaren jakite maila egiaztatzeko.

2.6.– Artikulu honetan ezarritako baldintzak eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dira, eta lanpostuaren jabetza hartu arte mantenduko dira.

3.– Eskariak.

3.1.– Hautatze probetan parte hartzeko eskaria egiteko, deialdi honetako III. eranskinetako eredu beteko da.

3.2.– Lehiaketan parte hartu nahi duten hautagaiek eskaria bidaliko diote Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, ezarritako edozein jardunbide erabiliz eta deialdi hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko den hogeiei egun balioduneko epearen barruan. Eskaria egiteko deialdiko III. eranskinetako eskari orria erabiliko da, behar bezala beteta. Eskariak gainera, lehiaketan parte hartzeko ezarritako eskakizunak egiaztatzen dituzten dokumentuak ere bidali beharko dituzte. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eskaria aurkezteko azken egunerako bete beharko dira.

Parte hartzeko eskariak UPV/EHUren Erregistro Orokorraren bulegoetan aurkeztuko dira, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an hartutako ERABAKIAREN arabera, zeinaren bidez onartzen baita Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa sortzeko Arautegia (2012ko ekainaren 18ko EHAA), edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulak ezartzen duen bideetako bat erabilita (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, urriaren 2ko BOEn argitaratua).

UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoen zerrenda UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan eskura daiteke, eta, gainera: Leioako Errektoregoko bulegoan, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Vitoria-Gasteiz) eta Ignacio M.^a Barriola ikasgelategian (Donostia-San Sebastián). Interneten ere kontsulta daiteke (http://www.ehu.es/oficinas_registro.html), eta egoitza elektronikoan.

Honako hau da UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoen ordutegia:

Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 16:30era.

Ostiraletan, udako lanaldian, Aste Santuan eta Eguberrietako txandetan:

09:00etatik 13:00etara.

Urte osoko larunbat eta igandeetan, jaiegunetan eta campus eta ikastegi bakoitzeko jaiegun berezietan, itxita egongo dira Erregistro Orokorraren bulegoak.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofiziala eta unibertsitatearena berarena erabiliko dira, kontuan hartzeko epeak ezartzean aintzat hartu beharreko egun baliogabeak.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek aintzat hartuko dute abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua ezarritakoa. Honako haxe dio posta zerbitzuak arautzen dituen Errege Dekretu horrek:

«Herritarrek edo erakundeek administrazio publikoetako organoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, posta zerbitzu unibertsala emateko prestazioa agindu zaion operadorearen bitartez, gutun-azala irekita aurkeztu beharko dute, bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorleak igorpenaren xehetasunak ere agertzeko eska dezake, igorri nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreproduktzioaren aurreneko orria jatorrizko agiriarekin parekatu eta berdina direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazioko organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.

Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun-azala, eta enplegatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.

Posta zerbitzu unibertsala esleitu zaion operadoreak onartutako bidalketak, artikulua honetan aurreikusitako formalizazioei jarraiki, behar bezala aurkeztutakotzat joko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, urtarrilaren 14ko BOEn argitaratutako 4/1999 Legeak aldarazia) eta haren garapen arautegiaren arabera (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikulua)».

3.3.– Eskariari dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) NANaren fotokopia (espainiar nazionalitatea duten hautagaiek).

Espainiako nazionalitatea izan ez arren lehiaketan parte hartzeko eskubidea daukaten lehiakideek beren nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu behar dute, bai eta, beharrezkoa denean, ahaidetasuna egiaztatzen duten dokumentuak ere. Era berean, ahaide-tasuna gorago aipatu den estatu bateko herritar batekin izanik herritar horren kargura daudenek edo horren menpe bizi direnek ere egoera hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar dute. Bestalde, lehiaketan parte hartzeko eskubidea daukatenek ezkontideak direlako, aipatutako dokumentuez gain, zuzenbidez banaturik ez daudela dioten zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko dute.

b) 2.2 oinarrian aipatzen diren baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia erkatua.

c) Azterketa eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

d) Euskaren edo hizkuntza ez-ofizialaren jakite maila egiaztatzeko titulua edo egiaztagiria.

3.4.– Plaza elebiduna bada eta lehiakideak euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko probetan parte hartu nahi badu, berariaz adierazi beharko du hori eskarian (IV. eranskina).

3.5.– Hizkuntza ez-ofizial baten profila duten plazetan, baldintza hori betetzen den ala ez adieraziko da berariaz eskarian (V. eranskina).

4.– Lehiakide onartuak eta baztertuak.

4.1.— Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, unibertsitateak lehiakide onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duen erabakia argitaratuko du, baztertze arrazoiak adierazita, Deialdi eta Lehiaketa Ataleko iragarki oholetan, hiru campusetako errektoreordetzetakoetan eta UPV/EHUren web orrian. Onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda horren kontra egiteko eta akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango da, zerrenda UPV/EHUko web orrian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

4.2.— Plaza elebiduna bada, euskararen jakite maila 2.2.4 oinarrian zehaztutakoaren arabera egiaztatuko da.

Horri begira, lehiakideren batek eskatzen badu euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzera zuzendutako probak egitea, lehiakide onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen egingo dira proba horiek.

Euskaraz irakasteko gaitasuna titulu edo egiazttagiri baliokideen bidez edo 2.2.4 oinarriak aipatzen dituen beste merezimendu batzuen baliozkotzearen bidez egiaztatzen bada, baliokidetutako tituluak edo merezimenduaren baliozkotzeak eskariak aurkezteko azken eguna baino lehen lortutakoak izan beharko dute.

4.3.— Eskainitako plazaren baldintzetako bat hizkuntza ez-ofizialen bat jakitea bada, 2.2.5 oinarrian adierazitako eran egiaztatuko da.

Horrela, bada, lehiakideren batek hizkuntza ez-ofizialean ezagutza, deialdiko eskakizuna dena (V. eranskina), egiaztatze probak eskatu baditu, proba horiek onartutako eta baztertutako lehiakideen behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik egin beharko dira.

Hizkuntza ez-ofiziala egiaztatzen bada hizkuntza ez-ofizialetan irakaskuntza emateko egiaztapena lortzeko arautegiaren bosgarren artikulua aipatzen dituen tituluak aurkeztuta, edo 5. artikulua horrek aipagai dituen merezimenduak baliozkotuta, bai titulua bai baliozkotzea eskariak aurkezteko epea bukatu aurretik lortuko dira.

4.4.— Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen erabakia emango du errektoreak, eta Errektoregoko Deialdien eta Lehiaketan Ataleko eta hiru campusetako errektoreordetzetako iragarki oholetan argitaratuko da, baita UPV/EHUko web orrian ere.

Erabaki hori izapide egintza kualifikatua da, eta aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da haren aurka UPV/EHUko errektorearen aurrean, erabakia UPV/EHUren web orrian argitaratu eta hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoek ezarritako moduan (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen erabakian, jasota geldituko da merezimenduak aurkezteko probarako deia Errektoregoko Deialdien eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholetan eta campusetako hiru errektoreordetzetakoetan argitaratuko dela, bai eta UPV/EHUko web orrian ere.

4.5.— Ezin izango da aurkeztu onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren aurkako errekurtsorik, baldin eta interesdunak ez badu behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, bere hartan utziriko egintza irmoa delako.

5.– Lehiaketako epaimahaiak.

5.1.– Erabaki honen II. eranskinean aipatzen diren kideek osatuko dituzte epaimahaiak, eta Errektorego honek izendatuko ditu.

5.2.– Epaimahaikideek ezin izango diote uko egin izendapenari, gerora zeregin horretan aritzea eragozten duen arrazoi justifikatu bat sortzen denean izan ezik. Errektoregoak, halakoetan, adierazitako arrazoia aztertuko du, eta erabakia hartuko bost egun balioduneko epean, izendapenari ezetz esaten dion idatzia jasotzen denetik kontatzen hasita.

5.3.– Lehiakideek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edo epaimahaikideek uko egin ahal izango diote parte hartzeari, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako parte ez hartzeko edo errekusatzeko egoeraren bat sortuz gero (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea).

Epaimahai titularreko kideei bertan aritzea eragozten dien arrazoiaren bat egonez gero (parte ez hartzeko edo errekusazio kasuetan, edo beste edozein arrazoiengatik), ordezeko kideak arituko dira haien ordeiz.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun epaimahaian, prozeduran parte ez hartzeko edo errefusaturatua izateko egoeraren batean dagoelako, kategoria eta antzintasun handieneko ordezkoa arituko da haren ordeiz. Ordezko guztiek ezinezkoa badute epaimahaian aritzea eta ezinezkoa bada epaimahaia ondorengo artikuluan azaltzen den moduan eratzea, beste epaimahai bat izendatuko da.

Epaimahaikideak errekusatzeko epea hilabetekoa izango da, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita (lehiaketaren deialdian bertan argitaratua), interesdunak errekusazio arrazoia, edo besteren bat, gerora jakin duela egiaztatzen duenean izan ezik. Kasu horretan, interesdunak errekusazio arrazoiaren berri izan duen egunean hasiko da epea.

5.4.– Epaimahaia eratzeko deia epaimahaiaren buruak egingo du, eta epaimahaiko titular eta ordezeko guztiei jakinaraziko die bilera eguna baino gutxienez 15 egun lehenago. Bilerako deian eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira, eta UPV/EHUko web orrian, Deialdi eta Lehiaketa Ataleko iragarki ohelean eta probak egingo diren ikastegiko iragarki ohelean argitaratuko da. Epaimahaia eratzerakoan kide titular guztiak bertan egonez gero, ordezekoak ez dira zertan joan.

5.5.– Epaimahaia balioz eratzeko, bost kidek parte hartu beharko dute gutxienez.

Epaimahaiko kide titular batek borondatezko eszedentzia hartzen badu, eginkizun gabetze egoerara igarotzen bada edo funtzionario izateari uzten badio, haren ordezekoak hartuko du bere gain zeregina. Hori posible ez bada, kategoria eta antzintasun handieneko ordezekoak ordezkaturiko du. Aukera guztiak agortuta ezin bada epaimahaia eratu, beste epaimahai bat izendatuko da.

Nolanahi ere, behin epaimahaia eratuta, nahikoa izango da epaimahaiburua, idazkaria (edo haien legezko ordezekoak) eta kide bat bertan izatea erabakiak hartzeko. Bertaratu ez diren kideak epaimahaiaren jardueratik kanpo geldituko dira behin betiko.

5.6.– Lehen bileran, epaimahaiak erabaki hauek hartuko ditu:

1.– Proben emaitzak non argitaratuko diren, Deialdien eta Lehiaketen Ataleko eta probak egingo diren ikastegiko iragarki ohelez gainera.

2.– Lehiakideek zer hurrenkeratan parte hartuko duten probetan.

3.– Lehiaketan erabiliko diren balorazio irizpide zehatzak, kontuan izanik plazaren ezaugarriak eta baremo orokorrak.

5.7.– Erabaki guztiak UPV/EHUren web orrian, probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean eta Deialdien eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholean argitaratuko dira.

5.8.– Idazkariak hartuko ditu bere gain epaimahaiaren jardura administratiboa eta kudeaketa ekonomikoa, unibertsitateko administrazio langileen laguntzarekin.

5.9.– Bermatu egingo da bai lehiakideek bai epaimahaikideek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izatea probetan, eta behar diren baliabideak jarriko dira horretarako. Hori dela eta, unibertsitateak aldibereko itzultzaile bat jarriko du epaimahaiaren zerbitzura, lehiakide batek edo epaimahaikide batek berariaz adierazten badu euskaraz egin nahi duela edo euskaraz jarraitu nahi duela prozedura. Euskaraz jakitea ezinbestekoa den plazetan, ahalegina egingo da epaimahaikide bat gutxienez euskalduna izan dadin.

6.– Probak.

6.1.– Epaimahaiek bermatu egingo dute lehiakideen aukera berdintasuna, eta publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko dituzte.

6.2.– Arautegi honek aurreikusten ez dituen gaitetan, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea) kide anitzeko organoei buruz dioena hartuko du kon-tuan epaimahaiak.

6.3.– Epaimahaia eratzeari buruz 5.4 oinarrian adierazitako erabakiarekin batera, epaimahai-buruak beste erabaki bat emango du, dei egiteko lehiaketan onartutako lehiakide guztiei beren hautagaitzen aurkezpena egitera. Erabaki hori argitaratuko da UPV/EHUren web orrian eta Deialdien eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholetan, aurkezpen ekitaldirako eguna, ordua eta lekua adierazita. Aurkezpen ekitaldia epaimahaia eratu eta hurrengo egun baliodunean egingo da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri.

6.4.– Aurkezpen ekitaldia jendaurrean egingo da, eta, bertan, lehiakideek lehen probarako dokumentazioa aurkeztuko dute. Ekitaldian, proben nondik norakoei buruzko azalpen guztiak emango zaizkie lehiakideei, eta zozketa egingo da, lehiakideen parte hartze hurrenkera erabakitzeko. Gainera, lehen proba egiteko lekua eta ordua zehaztuko dira.

Aurkezpen ekitaldian, epaimahaiburuak jakinaraziko du zer epe izango duten lehiakideek beste lehiakideek aurkeztu dituzten dokumentuak aztertzeko.

6.5.– Lehen proba egingo da lehiakideen aurkezpen ekitaldia egin eta hurrengo egun baliodunean. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri. Hurrengo proba lehen proba amaitu eta berehala hasiko da.

6.6.– Lehiakideek dokumentu hauek emango dizkiote epaimahaiburuari aurkezpen ekitaldian:

a) Curriculum vitae (bost ale), VI. eranskinetako ereduari jarraiki; eta curriculumean aipatutakoa egiaztatzen duten argitalpenen eta egiaztatgiriaren ale bat.

b) Plaza eskuratuz gero, lehiakideak burutuko duen irakaskuntza proiektua (bost ale). Unibertsitateak deialdian ezarritako ezaugarrietara egokituko da.

c) Plaza eskuratuz gero, lehiakideak aurrera eramango duen ikerketa proiektua (bost ale).

6.7.– Lehiaketak bi proba izango ditu, biak jendaurrekoak.

a) Lehen proban, lehiakide bakoitzak epaimahaiari azalduko dizkio bere lan ibilbideko merezimen-duak (lan arlokoak, akademikoak, irakaskuntzakoak eta ikerketakoak), eta bere prestakuntzaren

kualifikazioa, eskatu duen plaza betetzeko eta aurkeztu duen irakaskuntza eta ikerketa proiektuak garatzeko. Lehiakideek, gehienez ere, bi ordu izango dituzte ahozko azalpen horretarako.

Ondoren, epaimahaiak lehiakide bakoitzarekin eztabaidatuko du, bi orduz gehienez, honako gai hauen inguruan: aurkeztutako merezimenduak, irakaskuntza proiektua eta ikerketa proiektua.

b) Bigarren proban, lehiakideek ahozko azalpen bat egin beharko dute, gutxienez 45 minutukoa eta gehienez ordu eta erdikoa, plazaren jakintza arloko espezialitate bateko gai baten inguruan. Lehiakideek aukeratuko dute gaia. Ondoren, epaimahakideek elkarrizketa bat izango dute lehiakidearekin, hiru ordukoa gehienez, azaldutako eduki zientifikoez, edukiok ikasleei irakasteko metodologiaz eta gaiari lotuta jakingarritzat jotzen dituzten bestelako gaiez.

6.8.– Proba guztiak baztertzaileak izango dira.

Lehen probak gehienez 70 puntu balio izango du, eta gutxienez 35 puntu lortu beharko dira hurrengora pasatzeko.

Bigarren proban, gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira, eta 15 puntu lortu beharko dira gutxienez proba gainditzeko.

Epaimahaiak kontuan hartuko ditu unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario plazak betetzeko Irizpide Orokorrak eta Irizpide Espezifikoak (deialdi honen VIII. eranskinean jasoak).

6.9.– Lehen proban, baremo orokor hau erabiliko da:

a) Lehiakidearen historiala (profesionala, akademikoa, irakaskuntzakoa eta ikerketakoa): 42 puntu (lehen probako gehieneko puntuazioaren % 60).

Atal honetan, honako hauek baloratuko dira (zerrenda itxia ez den arren): titulu akademikoak; irakaskuntzan betetako lanpostuak; irakaskuntza alorrean izandako jarduera; ikerketan eginiko lana; argitalpenak (liburuak, artikulak eta bestelakoak); beste ikerlan batzuk; diru laguntzaz egindako ikerketa proiektuak; biltzarretan aurkeztutako komunikazioak eta txostenak; patenteak; emandako eta hartutako ikastaroak eta mintegiak; jasotako bekak, laguntzak eta sariak; enpresetan nahiz nork bere kabuz eginiko jarduerak; betetako kargu akademikoak eta erakunde mailakoak; irakaskuntzako edo ikerketako beste merezimendu batzuk, eta bestelakoak.

b) Irakaskuntza proiektua: 14 puntu (lehen probako gehieneko puntuazioaren % 20).

c) Ikerketa proiektua: 14 puntu (lehen probako gehieneko puntuazioaren % 20).

6.10.– Bigarren probarako, lehiakideek, lehen probaren kalifikazioa jaso ondoren, ahoz aurkeztuko duten gai edo ikerlan originalaren laburpen idatzia emango diote epaimahaiari.

6.11.– Lehiakide bakarra aurkezten bada, ahozko azalpenetik eta eztabaidatik salbuetsi ahal izango du aho batez epaimahaiak, eta lehiakidea izendatzeko proposamena egingo da zuzenean.

6.12.– Proba bakoitza amaitzean, epaimahaiak bilduko da, eta kide bakoitzak puntuazio bat emango dio lehiakide bakoitzari, eta balorazio hori azaltzeko txostena aurkeztuko du. Lehiakideak baloratzean, baremo orokorrari eta epaimahaiak onartutako irizpide espezifikoari erreparatuko diete epaimahakideek. Epaimahakide guztiak ados badaude, txosten bakar bat egin ahal izango du epaimahaiak, kuantifikatua eta arrazoitua.

6.13.– Lehiakide bakar batek ere ez baditu gainditzen bi probak, eman gabe utziko ditu plazak epaimahaiak.

7.– Merezimenduen balorazioa (elebidunak ez diren plazetan bakarrik).

Bi probak egin ondoren, eta hautaketa prozesua gainditu duten pertsonak zehaztu ondoren, pertsona horien merezimenduak baloratuko dira, honako honen arabera: euskara jakitea, elebidun ez diren plazetan bakarrik baloratuko dena. Deialdi honen VII. eranskinak jasotakoaren arabera baloratuko da, irakasle funtzionarioen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketaren arautegiaren arabera, Gobernu Kontseiluak 2009ko maiatzaren 28an onartutako arautegia, Irakasleen errektoreordeak 2009ko irailaren 15ean emandako erabaki bidez argitaratua (2009ko urriaren 9ko EHAA).

8.– Plazak betetzeko proposamenak.

8.1.– Proba guztiak gainditu dituen lehiakiderik badago, epaimahaiak izendapen proposamena egingo du, txostenak eta puntuazioak kontuan hartuta. Epaimahaiaren proposamen hori berehala argitaratuko da, leku hauetan: proba egin den lekuan, Errektoregoko Deialdien eta Lehiaketaren Ataleko eta hiru campusetako errektoreordetzetako iragarki oholetan, eta UPV/EHUko web orrian.

8.2.– Plaza betetzeko edo bete gabe uzteko proposamenak lehiakide bakoitzari egindako balorazioa jasoko du, behar bezala arrazoitua, ebaluazio alderdien arabera bereizita eta emandako puntuazioa zehaztuta.

8.3.– Lehiaketako epaimahaiak lehiakideen zerrenda arrazoitua proposatuko dio errektoreari, izendapenerako ordena baten arabera, hark izendapenak egin ditzan. Proposatutako kide kopurua ezin izango da izan eskainitako plaza kopurua baino handiagoa, eta proposamena loteslea izango da.

Berdinketarik badago, epaimahaiburuak kalitate botoa izango du.

8.4.– Epaimahaikideak ezin izango dira abstenitu bozketan. Epaimahaikide guztiek lehiakide guztiak kalifikatu beharko dituzte.

8.5.– Izendapena jasotzeko proposatu ez diren lehiakideek ezin izango dute plaza hutsei buruzko inongo eskubiderik aldarrikatu, ez eta inongo lan poltsetan sartzeko eskatu ere. Izan ere, ordezkapenak egin behar direnean, prozedura orokorra erabili beharko da; hots, sailen eta jakintza arloen arabera deitutako lan poltsa arruntak erabiliko dira.

8.6.– Epaimahaiko idazkariak bost egun baliodun izango ditu, epaimahaiaren jarduna bukatzen denetik, lehiaketako espediente administratiboa unibertsitateko Idazkaritza Nagusian aurkezteko, Deialdien eta Lehiaketaren Atalaren bidez. Espedientean honako dokumentu hauek bildu beharko dira:

a) Epaimahaia eratzeko bilerako akta eta horren ondoren eginiko bilera guztietako aktak. Akta horietan jarduera nagusiak jasoko dira.

b) Aurkezpen ekitaldian lehiakideek epaimahaiburuari emandako dokumentu guztiak.

c) Lehenengo proba gainditu duten lehiakideek bigarren proban eman eta ahoz aurkeztutako gai edo ikerlan originalaren laburpena.

d) Proba bakoitza ebaluatzeko aplikatutako irizpide espezifikoak jasotzen dituen dokumentua.

e) Txostenak eta zenbakizko balorazioak.

f) Plazak betetzeko proposamena, lehiakide guztien zerrendarekin, plaza betetzeko lehentasunaren arabera ordenatuta.

8.7.– Zortzigarren oinarriaren b) eta c) ataletan aipatutako dokumentuak bi hilabetetan egongo dira Deialdien eta Lehiaketan Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik hasita. Dena dela, proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, ebazpena irmoa izan arte egongo dira dokumentuak atal horretan.

Urtebete igarotzean interesdunak dokumentuak hartzera joan ez badira, unibertsitateak dokumentuak suntsitu ahal izango ditu.

8.8.– Lehiakideek Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiari eskatu ahal izango diote epaimahaikide bakoitzak beren merezimenduen inguruan emandako balioespen arrazoituaren ziurtagiria (behar bezala kuantifikatua) edo, hala badagokio, epaimahaiaren txosten bakarra.

8.9.– Lehiakideek epaimahaiak plaza betetzeko edo ez betetzeko egindako proposamenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote errektoreari, proposamena UPV/EHUko webgunean argitara eman, eta hamabost egun balioduneko epean. Erreklamazioa tramitatzea onartzen bada, izendapenak eten egingo dira, behin betiko erabakia hartu arte.

8.10.– Erreklamazio Batzordeak aztertuko du erreklamazioa. Hots, lehiaketako espedientea berrikusiko du, publizitate printzipioa eta lehiakideen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu direla egiaztatzeko; beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak eramango ditu aurrera; eta, erreklamazioa onartzen den ala ez erabakiko du, erreklamazio jaso eta hiru hilabeteko epearen barruan. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, erreklamazioa ezetsi delako izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

8.11.– Erreklamazio Batzordeak hartutako erabakiak lotesleak izango dira errektorearentzat eta, haren erabakiek administrazio bidea agortzen dutenez, aurka egiteko administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko da zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 legeari jarraituz.

8.12.– Erreklamazio Batzordeak erreklamazioa onartuz gero, errektoreak erabakia emango du argitara, eta akatsa gertatu zen unera eramango da berriz prozedura, eta, hala behar izanez gero, epaimahaiak beste izendapen proposamen bat egingo du.

9.– Dokumentuak aurkeztea, izendapenak egitea eta karguak hartzea.

9.1.– Epaimahaiak proposatutako izendapenak errektoreak egingo ditu, lehiakideak, epaimahaiaren jarduera amaitu ondorengo hogeitau egunetan, honako dokumentazio hau entregatu ondoren Deialdien eta Lehiaketan Atalean:

a) Unibertsitateko irakaslearen zereginak betetzea eragozten duen gaixotasun edo arazo fisiko edo psikikorik ez duela ziurtatzen duen Medikuen Ziurtagiri Ofiziala.

b) Diziiplina espediente bidez Estatuko Administrazio Orokorreko zerbitzutik edo autonomia, instituzio edo tokiko administrazioetako jardueratik bereizita ez dagoela eta funtzio publikorako ezgaitua ez dagoela ziurtatzen duen zinpeko aitorpena. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko beren herrialdean funtzio publikoan aritzea eragozten dien diziiplina zehapenik edo kondena penalik.

Horretarako, epaimahaiko idazkariak, haren jarduera amaitzean, proposatutako izendapena argitaratuko du UPV/EHUren web orrian eta proba egin den lekuan, atal honetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar dela gogoratuz. Izendapenerako proposatu den pertsonak 20 egun izango ditu horretarako.

Aktibo dauden karrerako funtzionario publikoek ez dute aurreko atalean aipatu diren dokumentuak aurkeztu eta eskakizunak bete beharko, eta funtzionario izaera egiaztatzen duen beren

Administrazioaren ziurtagiria aurkeztuko dute, beren Zerbitzu Orrian jasota dauden gainerako inguruabarrekin batera.

9.2.– Plaza betetzeko proposatzen den lehiakideak dagokion epean eskatutako dokumentuak aurkeztu ezean, galdu egingo ditu bere eskubideak, eta ez dute izendatuko karrerako funtzionario, ezinbesteko arrazoiek eragotzi diotela frogatzen ez badu. Unibertsitateko errektoreak puntuazioaren arabera zerrendan hurrengoa den lehiakidea izendatuko du, lehiakide horrek oinarri honetako lehenengo atalean aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Horretarako, hogeiei eguneko epea izango du, proposamena jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

9.3.– Izendapenean honako hauek zehaztu beharko dira: plazaren izena, kidegoa, jakintza arloa, saila, ikastegia, arduraldia, hizkuntz eskakizuna eta lanpostuen zerrendako kodea.

9.4.– Izendapena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluko Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

9.5.– Proposatutako hautagaiak plazaren jabe egin beharko du, hogeiei eguneko epean, izendapena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Une horretatik aurrera, unibertsitateko irakasle titularren kidegoko funtzionarioa izango da.

9.6.– Lehiakideak beste lanposturen bat badauka arlo publiko edo pribatuan, bateragarritasun baimena eskatu beharko du plazaren jabe egin aurretik, jabetza hartzeko epearen lehenengo hamar egunen barruan. Bateragarritasunari buruzko erabakia eman bitartean, luzatu egingo zaio plazaren jabe egiteko epea.

9.7.– Plaza betetzeko proposatutako hautagaia aipatutako epean plazaren jabe egiten ez bada, hori ezinbesteko kasuaren eraginez izan dela egiaztatzeko agiririk aurkeztu ez badu eta plazaren jabe egiteko epea luzatu ez bada, UPV/EHUko errektoreak balorazio ordenaren arabera zerrendan hurrengoa den lehiakidea izendatuko du, lehiakide horrek 9.1 oinarrian aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentu guztiak aurkeztu ondoren.

9.8.– Behin plaza lortuta, interesdunak gutxienez bi urte egin beharko ditu plaza horretan, beste unibertsitate batean plaza bat lortzeko lehiaketan parte hartu ahal izateko.

10.– Azken araua.

10.1.– Gobernu Kontseiluak 2009ko maiatzaren 28ko bileran onartu zuen Irakasle Funtzionarioen Kidegoetan sartzeko lehiaketan arautegian (2009ko urriaren 9ko EHAA) eta deialdi honetan zehaztutako epeak zenbatzerakoan, abuztua ez da kontuan hartuko. Hilabete horretan ez da aipatutako jardueretako bat bera ere egingo.

10.2.– Lehiaketa egin bitartean, epaimahaiek argituko dituzte deialdiaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak, bai eta aurreikusi ez diren egoeretan nola jokatu ere. Dena dela, batzordeen jardunak bat etorri beharko du urriaren 1eko Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Jurikoaren 40/2015 Legearekin.

10.3.– Eszedentzian daudenak zerbitzu aktibora itzultzea.

1.– Borondatezko eszedentzian dauden unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioak zerbitzu aktibora itzultzeko, plaza bat lortu beharko dute edozein unibertsitatek deitutako unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko lehiaketetan, abenduaren 21eko Unibertsitateen

6/2001 Legearen 62. artikulua ezarritakoaren arabera (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak emandako idazketa berrian).

2.– Zerbitzu aktibora itzultzea, gainera, eszedentzia hartu aurreko jatorri ikastegiari zegokion unibertsitatean egin ahal izango da, eta unibertsitate horretako plaza bati behin-behinean atxikitze eskatuko dio errektoreari. Hala, unibertsitate horrek bere kidego eta jakintza arloetarako deitutako lehiaketa guztietan parte hartu beharko du, eta behin-behineko atxikipena galduko du hori egin ezean.

3.– Zerbitzu aktibora itzultzea automatikoa eta behin betikoa izango da, interesdunak jatorri unibertsitateari eskatuta, baldin eta gutxienez bi urte igaro badira eszedentzian, eta bost baino gutxiago, kidego eta jakintza arlo bereko plaza hutsik egonik.

Kasu horretan, ez da lehiaketarik egingo plaza hutsa betetzeko, adierazitako denbora baldintzak betetzen dituzten unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario bat baino gehiago daudenean eta zerbitzu aktibora itzultzeko plaza bera hautatzen dutenean izan ezik. Halakoetan, lehiaketa egingo da, eta funtzionario horiek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

4.– Plaza baterako lehiaketa deituta, pertsona batek aurreko atalean aipatutako itzulera automatikoa eskatzen badu, bertan behera utziko da lehiaketa, baldin eta itzulera eskaria lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen barnean egin bada. Ordaindutako azterketa tasak itzuliko dira.

10.4.– Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da haren aurka, Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikuluari lotuta).

Bestela, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, erabakia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hala egiten bada, ezin izango da aurkeztu aurreko atalean aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsioa, harik eta berraztertze errekurtsioa berariaz erabakitzen den arte edo ustezko ezespena gertatu arte.

10.5.– Era berean, deialdi honetatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako kasuetan eta bertan adierazitako moduan.

Leioa, 2016ko azaroaren 16a.

Errektorea.

Eskumena eskuordetuta (errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Ebazpena, 2013-02-13ko EHAA).

Irakasle-Ikertzaileen Arloko Errektoreordea,
XABIER ETXANIZ ERLE.

I. ERANSKINA

LEHIAKETAN ESKAINTZEN DIREN UNIBERTSITATEKO IRASKALE TITULARREN KIDEGOKO PLAZEN ZERRENTA

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: TUC8/1-D00028-23. Kidegoa: Unibertsitateko irakasle titularrak. Jakintza arloa: «Artearen Historia». Saila: Artearen Historia eta Musika. Ikastegia: Letren Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Hiru eleduna (gaztelania-euskera-ingeles); Arduraldia: Osoa; Egin beharreko irakaskuntza eta ikerkuntza lanak: «Errenazimentuko Artearen Historia», «Euskal Herriko XIX. Mendeetako Artearen Historia» eta «Abangoardia Historikoak».

